

DATORRENA

Kanpainak eta dinamikak,
aitakeriaz harago IÑAKI SOTO > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Biharko hauteskundeetan,
«alea jacta est» IÑAKI ALTUNA > 9

2023ko uztailaren 22a | XVII. urtea • 834. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«URA BIZIA DA», NAVAJOEN 20 URTEKO ALDARRIA

IA 20 URTE DARAMATZA NAVAJO HERRIAK OINARRIZKO ELEMENTU BATERAKO ESKUBIDEA
ALDARRIKATZEN: URA NAHI DUTE. 70.000 KILOMETRO KOADROTAN BIZI DIRA 170.000

NAVAJO, AEBETAKO EREMURIK IDORRENETAKOAN. > 4 DIGDEEP'S NAVAJO WATER PROJECT



«Ura bizia da», navajoen
oinarrizko eskaera ukatu du
AEBetako Auzitegi Gorenak 04

Apaindegien kontra egin dute
orain talibanek 07

Bideojokoak euskararentzat,
lursail hori ere konkistatu beharra
dago 10

Oñatiko Arrikrutz kobak,
geologiaren eta paleontologiaren
lur barruko taupada 14

Elkarrizketa: Ibai Atutxa
Ordeñana, idazlea 18

«Shareting», sare sozialetan
seme-alaben irudiak partekatzea
ez da hain gauza xaloa 21

Juantxo Egañaren behatzulotik 23



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Kanpainak eta
dinamikak, aitakeriaz harago

08 **Saioa Aginako Lamarain:**
Adabakiak askatuz

09 **Iñaki Altuna:** Biharko
hauteskundeetan, «alea jacta
est»

13 **Amaia Ballesteros**

16 **Nagore Barrena
Oruechevarria:**

Proteinak eta beraien egitura

17 **Xabier Izaga Gonzalez:**
Zenbait legeren mehatxua,
«zientzia» eta «enpatia»

22 **Miren Azkarate Badiola:**
Segi dezagun dantzan, segi
dezagun ametsetan

22 **Amagoia Mujika Telleria:**
Bazkalosteak



{ datorrena } Iñaki SOTO

Kanpainak eta dinamikak, aitakeriaz harago

Duela urte mordera, ezker abertzalearen txosten autokritiko batek zioen kanpaina gehiegi egiten zela eta, horien orde, dinamikak piztu behar zirela. Hasieran, ados nengoen. Gero, dinamikak amaierarik eta ordenarik gabeko kanpainen segida zirela iruditu zitzaidan.

Jakina, baliteke gu beste ezer egiteko kapazak ez izatea. Izan ere, dinamika kanpaina eta prozesu politiko baten erdian kokatzen den ekimena izango litzateke. Berez, badute zentzua, gauzatu ez den arren. Orduetik, dinamikak susmagarriak egiten zaizkit eta kanpainen gehiago estimatzen ditut.

Sarri, erakundeetan –izan enpresa, instituzio edo alderdi– beste zerbaiten bila aritzen gara, eta erantzun zuzena kanpaina bat da, besterik ez. Neurtua eta neurgarria den ekimen komunikatibo bat, politikoa eta instituzionala, bere adierarik zabalenean.

Gainera, hauteskundeetan testuingurura itzulita, kanpainen indarra irabazi dutela esango nuke. Izan da aro bat non ez zuten apenas ezer mugitzen. Hobeak edo okerragoak ziren, noski, baina ez ziruditen bereziki eraginkorrak. Alderdien osasun egoeraren adierazle onak ziren, baina ez zituzten boto-emaeleak mobilizatzen. Orain, teknologiaren eraginez, munduak hartu duen abiaduraren ondorioz eta politizazio modu desberdinak direla medio, kanpaina batek emaitzetan eragin handiagoa izan dezakeela dirudi. Akatsak ez egitearekin ez da nahikoa.

Aste honetan, Ioni Abelson aholkulari argentinarrek kanpainen zer diren eta zer ez diren laburbildu du Twitterren: «*Una campaña nunca es hacer pedagogía. ¿Quién somos nosotros para enseñarle algo a alguien? Una campaña busca camuflarse en una conversación pre-existente, instalar nuestros ejes y narrativa*

de la forma más armónica posible». Kontakizun zabalago baten baitan sartzen den mekanismo biderkatzailerik gisa ulertzea interesgarria iruditu zait. Aurretik, agenda markatu ahal izateko, lehendabizi ildo zuzen markatu behar da. Eta kontakizuna beldur gabe txukundu, etengabe zuzenduz eta doitu. Teknika eta talentua behar dira. Lan zaila da.

Diskurtso publikoan hain zabaldua dagoen aitakeriaz aldentzen delako ere gustatu zait. Paternalismoa manipulazio-maila eskasena da: bere indar bakarra botere desoreka da. Ez gaude inori lezioak emateko, astunak izateko. Zentzu honetan, gazteen faktorea kanpainen nola sartu den interesgarria iruditu zait.

Estatu mailan, “La Pija y la Quinqui”-k “Perro Sanxe”-ri egin zioten elkarrizketaren eragina neurtzeko

Kanpainak «pedagogia egiteko» ez direla esanda, Abelsonek alboratzen du ohiko aitakeria. Paternalismoa manipulazioaren mailarik eskasena da, bere indar bakarra botere desoreka baita

gaitasunik ez daukat. Paradoxikoki, Sanchezek hor eman du bere mailarik onena. Ekimen arrakastatsua izan zen, zalantzarik gabe, baina ez dakit hori boto bihurtuko ote den –«txanponduko» duten–. Teknikoki, oraingo, urrats hori zail ikusten dut.

Euskal Herrian, EH Bilduren aldeko kanpaina egiteaz gain, Ernaik bozkatzeko adina 16ra jaitea eskatu du. Era horretan, aurretik existitzen den elkarrizketa batean beren ildo eta kontakizuna modu trebean kokatu dute, Abelsonen arabera. Nazioarteko korrante bat bereganatu dute eta beren ondare politikoan kokatu egin dute gora. Agian, gaur egungo gazte eroak biak, kanpainen eta dinamikak, egiteko gai dira. •

«URA BIZIA DA», NAVAJOEN ESKAERA

«Tó éí ííná», «ura bizia da»; navajoen oinarrizko eskaera ukatu egin du AEBetako Auzitegi Gorenak

📁 GIZA ESKUBIDEAK / Urtzi URRUTIKOETXEA

la 20 urte daramatza navajo herriak oinarrizko elementu baterako eskubidea aldarrikatzen: ura nahi dute. 70 mila kilometro koadro inguruko eremuan bizi dira 170 mila navajo; Ameriketako Estatu Batuetako erreserba handiena da, herrialdeko eremurik idorrenetakoan. Hiru biztanletik batek ez du iturriko ur-hornidurarik etxean. Auzitegi Goreneraino eraman dute auzia indigenek, baina epaile eskuindarrak progresistei gailendu zaizkie eta ukatu egin dute navajoen eskaera.

Etxetik irten kamionetan, dozenaka kilometro gidatu western filmek famatutako Monument Valley inguruko harri gorritzko lurretan eta beste auto batzuen atzean jarri. Izan zitekeen turistek bisitatzen duten leku ezagunenetako baterako zain egotea, baina ez, askoz beharrian arruntagoa daukate milaka navajo indigena familiak: urez bete 1.200 litroko tankeak eta etxera itzuli. Eta biharamunean, berdin. «Ur hori behar dugu dutxatzeko, lanerako; benetan zorionekoak dira iturriko ura dutenak», dio Eloise Wilsonen. «Urarekin otoitz egiten dugu, bedeinkatu; oso berezia da guretzat».

Seme-alabak eta bilobak dituzten familientzat, horrelako tanke batek doi-doi balio du egun baterako. Biharamunean, berriz ere bide bera, eta itxarotera. Udan, hiru orduz ere egon daitezke zain auto-ilaran.

Azken urteotan biztanleria asko hazi da navajoak bizi diren estatuetan, Utah, Mexiko Berria eta, batez ere, Arizonan. Ondorioz, Colorado ibaiak zeharkatzen dituen lurraldeen arteko lehia areagotu egin da, ura nork eta nola izan dezakeen ebazte-

ko. Aurten, gainera, lehorreak are larriagoa bihurtu du egoera, eta inoiz baino garrantzitsuago bilakatu du eskualdeko ubideen erabilera.

Navajoek aitortua daukate San Juan erreka eta Cutter urtegiaren erabilera, baina ez erreserbaren muga egiten duen Behe Colorado ibaiko ura etxetara bideratzea. Hala, navajoen

eskaeraren aurka egiteko eskaeru zioten Auzitegiari Arizona, Nevada eta Colorado estatuek eta ibaiak ureztatzen dituen Kaliforniako lurraldeek. 40 milioi lagun bizi dira ibaiaren inguruan, eta estatu bakoitzak bere interesak defendatzen dituen artean, navajo herria umezurtz sentitu da, teoriarik herriaren ongizatea bermatu beharko lukeen Gobernu federalak bizkarrara eman diolako.

Washingtonen argudiatu du navajoek arrazoi emanez gero, eskualdeko beste herri indigena batzuek ere bide bera jarraitu eta auzitara joko dutela atzetik.

Euskal Herria baino hiru eta erdi aldiz handiagoa den eremua hartzen du navajo nazioak, AEBetako hego-mende-

baldeko hiru estatutan. Nagusiki basamortua izan arren, Colorado ibaia erreserbaren mugatik igarotzen da, baita haren bi ibaiadar ere. Hala ere, navajo askorengana ez da iristen ur hornidura, eta bereak eta bi egin behar izaten dituzte oinarrizko elementua eskuratzeko, lurraldean zehar dauden putzu eta bestelako iturrietara joz.

Estatubatuar bakoitzak egunean 300-350 litro ur darabil-tzan bitartean, navajo herritar-rak 25 litro baino ez dituela salatu dute indigenek.

ITUN ZAHARRAK

Izan ere, duela mende eta erdi navajo herriak ituna sinatu zuen AEBetako gobernuarekin. Sinatu behar izan zuten,

Neska navajo bat etxeko ur txorrotan irekitzen.
DigDeep's Navajo Water Project



argi esateko: “the Long Walk” edo “ibilaldi luzea” eginarazi zien Washingtonen navajoei 1864an, haien lurraldetik kanporatu eta Bosque Redondo eremu elkorra behartu zituen, ehizarako edo nekazaritzarako aukerarik gabe. Ura ere eskas, milaka navajo hil ziren. Hala, 1868ko Bosque Redondoko Akordioan (Naal Tsoos Sani, navajoeraz) haien lurrraren zati handi bati uko eginarazi zien Washingtonen indigenei eta erreserba eratu zuen gainerakoan; trukean, oinarritzko zerbitzuez arduratuko zela esan zuen AEBetako Gobernu federalak, hala nola, osasungintzaz, azpiegiturez edo etxebizitzaz.

Lehena bai, gertatu zen, baina itunaren bigarren zatia, AEBek adostutako zerbitzuen hornidura, sekula ez dela bete salatu dute navajoek.

Shay Dvoretzky abokatuak Auzitegi Gorenari argudiatu zionez, navajoek «argi utzi» zuten itunak, «behin betiko lurralde bat» aginduta, bere baitan hartzen zuela «aski ur izatea nekazaritza eta abeltzaintzarako. Hainbat kilometrotaraino joan eta ura ekartzeak esan nahi du erreserbatik kanpo baino 20 aldiz garestiagoa izan daitekeela ura». Zegokiena baino ez zutela nahi azaldu zien abokatuak epailei. «Promesa bat bete behar solemne bat da, AEBen betebeharra da bermatzea navajo nazioak behar duen eta AEBek agindu zioten ura izatea».

Heather Tanana Utah-ko unibertsitateko irakasleak AEBko irrati publikoari azaldu dionez, 1868ko itunaren jatorria AEBetako politiken ondorio izan zen: mendebalderantz hedatu ahala, herri indigenak erreserbetara joatera behartu zituzten. «Erreserba horiek ezartzean, herri indigenentza-

ko behin betiko aberri izatea agindu zitzairen. Eta uste dut denok bat etorriko garela esateko ez duzula aberririk izatearik urik gabe». Martxoan egindako saioan, Neil Gorsuch epaileak galdetu zuen: «Kontratua urratu izana argudiatu ahal izango nuke norbaitek behin betiko etxea eta nekazaritza eta abeltzaintza izateko eskubidea agindu badizkit, eta ohartzen banaiz Saharako basamortua dela?».

Navajoen abokatuek eskaera oso xumea zela gogorarazi zuten, ur-beharrizanak aitortzea eta horren arabera planifikazio bat egitea eskatzen baitzuten: «Gobernuak gauza izugarriak gertatuko liritekeen hipotesia darabil, ehunka kilometroko hoditeria eraikiaraziko bagenio legez. Ez gara horri buruz ari». Heather Tananak ere oinarritzko balorazio eta plangintzat bat baino ez direla eskatzen ari go-

Washingtonen argudiatu du navajoei arrazoi emanez gero, eskualdeko beste herri indigena batzuek ere bide bera jarraitu eta auzitara joko dutela atzetik

«Ez da harritzekoa Auzitegi Gorena, epaitegi koloniala izanik, gobernu kolonial baten alde jartzea. Boterea tinko ari da jatorritzko herrien aurkako testuinguru honetan»

Ura hornitzeko Navajo Water Project egitasmoaren lanak.
DigDeep's Navajo Water Project

gorarazi du: «Navajo herria eskatzen ari da etxeetarako, eskoletarako, ospitaleetarako edota garapen ekonomikorako beharrezkoak identifikatzen laguntzeko eta horretarako plan zehatz bat egiteko».

Epaile eskuindarren taldean egonda ere gai indigenekin bat egin ohi duen Neil Gorsuch jujeak arrazoi eman zien: «Gobernuari ur-eskubideak identifikatzeko baino ez diote eskatu, eta ez dute bestelako urrats handirik bilatzen. His-

toria zailean zehar egin behar izan duten gisan, berriz ere beren buruaren alde borrokatzen ari dira, beren lurrraren eta horrekin datorren oinarritzkoaren alde». Gorsuchek eta hiru epaile progresistek navajoen alde egin arren, auzitegioko beste kide eskuindarrek aurka egin zuten, eta 5-4 bozketarekin atzera bota zuten indigenen eskaera.

Eskaera ukatzeko auzitegiaren gehiengoaren argudioak Brett Kavanaugh epaile kontserbadoreak idatzi zituen. Epaian dio navajo nazioarekin 1868an egindako itunak ez diola eskatzen AEBetako gobernuari ura etxera heltzea bermatzeko neurri aktiborik hartzeko. «Botere Judizialaren eginkizuna ez da duela 155 urteko itun hori berridaztea eta eguneratzea». Gobernuak argudiatu zuen, izan ere, itunean ez dagoela zehaztuta urari buruzko konpromisorik eta, ondorioz, ez duela horrelakorik egin beharrik.

Orain artean Colorado ibaiaren ibaiadar batzuetan hoditeria, ur-tratamendurako guñeak eta punpatze-plantak eraikitzen lagundu izan duela dio Washingtonen.

Baina ibaiaren arro nagusiko eskubideak ukatuta, etxean urik gabe bizi dira erreserbako 170 mila navajoen herenak. Navajo Water Project irabazi asmorik gabeko egitasmoak etxez etxe konponbideak bilatzen ditu, baina bide luzea daukate oraindik AEBetako herri indigenarik handienetakoren ur-hornidura bermatzeko.

ETSIPENA

Kargua hartu zuenetik indigenen eskubideen aldeko diskurtsoa izan du Joe Bidenen administrazioak, eta horrek are mingarriago egin du askoren-



tzat auzi honetan izandako jarrerara. «AEBetako herritarrak gara, baina ez gaituzte hala koak bagina legez tratatzen. Entzun dezakezue frustrazioa nire ahotsaren tonuan. Nire ahotsaren frustrazioa eta doinua entzuten da. Berrero ahaztu gaitu gure gobernuak», salatu zuen Buu Nygren navajo nazioko presidentek Gorenaren ebazpena ezagutu bezain laster.

Epaia etsigarria izanda ere, aldeko lau epaileek adorea ematen zietela esan zuen Nygren navajoen presidentek, eta Colorado ibaiaren ur-eskubideak lortzeko borrokan jarraituko zuela gaineratu zuen. «Nire lana, navajo nazioaren presidente gisa, navajo herria ordezkatzeko eta babestea da, gure herria, gure lurra eta gure etorkizuna. Hori egiteko era bakarra da Colorado ibaiaren behe-arroan ur-eskubide zehatzak bermatzea».

Andrew Curley Arizonako unibertsitateko irakasle eta navajo herriko kidearentzat epaia ez da ezustekoa izan. «Ez da harriztekoa Auzitegi Gorena, epaitegi koloniala izanik, gobernu kolonial baten alde jartzea. Boterea tinko ari da jatorrizko herrien aurkako testuinguru honetan».

Auzitegi Gorenean ebatzita-ko auzi zehatza Washingtoneko gobernuak navajo herriaren ur-hornidura bermatu behar ote duen izanda ere, funtsean hamarkadaz luzatzen ari den arazo bat konpondu gabe geratu da. «Nora doaz navajoak hemendik», idatzi zuen Neil Gorsuch epaileak, gehiengoaren aurkakoak. «Navajoek pazientziaz itxaron dute ia inork, edonork, laguntzen dien, eta behin eta berriz esaten zaie itxaroteko, ilara okerean zeudela eta beste bide bat saiatzeko».

Cindy Howe, Navajo Water Project-eko zuzendaria. DigDeep's Navajo Water Project



CINDY HOWE

NAVAJO WATER PROJECT-EKO ZUZENDARIA

«Etsigarria da, baina ez du gure lana aldatuko»

Navajo erreserban hazi zen, eta zorioneko izan zen eta iturriko ur garbia izan zuen, familiak bazeukalako putzu bat. Baina laster ezagutu zuen bere lagun eta inguruko askok ez zutela zorte bera. Urteak daramatza bere herriaren bizi-baldintzak hobetzeko eta navajo nazioaren eskubideak bermatzeko borrokan.

Zein iritzi duzue Auzitegi Gorenaren erabakiaz?

Etsigarria da, zalantzarik gabe. Baina ez du gure lana aldatuko. Navajo nazioari ur garbia, hornidura ekartzen jarraituko dugu.

Zelan da posible 2023an munduko herrialderik indartsuenean jendea urrik gabe egotea?

AEBetako bi milioi lagunek baino gehiagok ez daukate iturriko ur garbirik etxean. Kasu hau da nabarmenena, baina herrialde osoan zehar, herritar indigenek estatubatuar zuriek baino

hemeretzi aldiz aukera handiagoa dute ur falta izateko. Beltzen eta latinoen aukera hori bi aldiz handiagoa da, baina indigenen kasuan hemeretzi aldiz.

Erabaki horrek ate guztiak itxi ditu? Zein urrats pentsatu dituzue aurrera begira?

Ez, noski, ez ditu ate guztiak itxi. Irabazi asmorik gabeko erakunde gisa, DigDeep-en Navajo Water Project-en ezin dugu zehaztu tribuaren gobernuak zein urrats egingo dituen, baina navajoz osatutako gure taldean, navajo nazioari ur garbia ekartzen jarraituko dugu..

Nola egiten duzue lan hori?

Navajo Water Project-en borroka navajo nazioaren uraren ziurgabetasunari aurre egitea da, hainbat eratarata. Urruneko eta isolatutako etxeetan, etxeko ur-sistema bat instalatu dezakegu, 1.200 galoiko (4.500 litro) tanke bat familiaren lurretan lurperatuta eta sukaldeko iturrira konektatuta, ur hotz eta beroarekin. Beste familia batzuen kasuan, zentzuzkoagoa da aurretiaz dagoen ur-hoditeriara egitea konexioa. Komunitateak gidatutako taldeak eratzen ditugu, komunitate zehatz bakoitzak dituen beharrianak konpontzeko.

Ur faltak herri indigena gisa lehentasunak ere aldatzen dituela susmoa dut.

Zenbaterainoko energia kentzen du oinarrizko gabezia horrek, gainerakoan beste egitasmo batzuk bultzatzen erabiliko litzatekeena?

Ur faltak navajo nazioko familiei sekulako denbora eta energia kentzen die. Kostu fisikoa dauka (ura garraiatu beharra edota urarekin lotutako gaixotasunak), buruko kostua (ura nondik lortu pentsatu beharra), denbora kostua (ura lortzeko eta gordetzeko behar dena) eta abar. Denbora eta diru hori guztia jendeak lanean, ikasten, jolasean edo kultura biziberritzen baliatu ahalko luke, hizkuntza biziberritzen, baina biziraupena oinarrizko betebeharra da.



AFP



IKUSMIRA

APAINDEGIEN KONTRA EGIN DUTE ORAIN TALIBANEK

Talibaneak apaindegiak itxi dituzte Afganistanen. Abuztuan bi urte beteko dira boterea berreskuratu zutenetik. Orduan, aditu batzuek esan zuten oraingo talibaneak ez zirela lehengoak bezalakoak. Aurreikuspen horiek ez datoz bat inondik inora errealitatearekin. Boterea hartu zutenetik, pixkakana-pixkanaka emakumeen eskubideak murrizten joan dira, bata bestearen atzetik. Ezin dira parkeetara edo gimnasia joan, ezin dute unibertsitatean ikasi edo lan egin, nazioarteko erakundeetan edo gobernu kanpoko erakundeetan lan egitea ere debekatuta dute, etxetik erabat estalita atera behar dira... Eskubide murrizketen zerrenda luzeegia da, tamalez. Orain apaindegiak itxi ditu Bizioa Prebenitzeko eta Bertutearen Ministerioak, horietan dirutza handiak gastatzen zirela-eta hori «familia pobreentzat zama handia» zela argudiatuta. Era berean, apaindegietan, emakumeei lege islamikoa errespetatzen ez zuten zerbitzuak eskaintzen zitzaizkiela esan du. Debeku berri horren aurrean, asteazkenean emakume talde batek protesta egin zuen Kabul. Haien kontra gas negar-eragileak jaurtiz erantzun zuten talibaneak. Ainar LERTXUNDI



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Adabakiak askatuz

Dena ondo doa nire bizitzan, baina hutsik sentitzen naiz». Sentsazio horri askotan ez diogu aurre egin nahi, arazoaren sustraia identifikatzea eta konpontzea eragozten diguten behin-behineko adabakiak jarritz. Galduta sentitzeari izen asko jar diezaiokegu, egia esan. Batzuetan, adin edo ziklo amaierako krisiaz hitz egin dezakegu, edo gehiegikeriak edo konpultsioak eragiten dituzten adabaki kaltegarriekin lotutako arazoak izan ditzakegu. “Huts-sentimendua” dei diezaiokegu, eta egiten dugun guztiak ez duela zentzurik sentitu. Galduta egotearen sentsazioa zehaztugabea izan daiteke. Galduta senti gaitezke maite dugun pertsona baten absentiaren edo lotura garrantzitsu baten hausturaren aurrean. Era berean, huts-sentipen bat sor daiteke gure baitan bizi-helbururik ezaren aurrean. Galduta sentitzen garenean inorena ez den lurrean gaude, egiten genuenaren eta aurkitu ez dugun irtenbide berriaren artean. Kontsolamendu handia ez bada ere, pertsona guztiak sentitzen gara horrela unereren batean, eta lasaitasuna, lehenago edo geroago, iritsi egiten da.

Hutsik sentitzean, badi-rudi emozio negatibo batzuek aliatzea, indarra hartzea eta gure bizitza zailtzea erabakitzen dutela. Ondoez ez-espezifikoa sakon batekin lotzen da. Ezinegon ikaragarria sentitzen da, baina ez dakigu zein den bertatik irteteko bidea. Hutsune horrek sortzen dituen emozioak hain biziak izan daitezke, ezen ohikoa baita pertsonak estrategia bizkorren bidez horiek arintzen saiatzea, hala nola denbora mota guztietako jarduerekin betetzea, adikzio jakin batzuk izatea edo ondasun materialak eskuratzea. Hala ere, jokabide horiek berehalako adabaki bat baino ez dira, eta, gainera, hasierako arazoak baino zailtasun gehiago sor ditzakete.

Hutsa kanpoko zerbaiten gabezia bezala sentitzen dugun arren, egia esan, geure absentiak ematen digu mina, geure buruarekiko deskonexioak. Gabezia hori adieraztea hain da zaila sentitzen duenarentzat, nola horren berri jasotzen duenarentzat. Sentimendu hori ia ezin du azaldu jasaten duenak, eta, horregatik, oso zaila da ulertzen ingurukoentzat.

Pentsatu gizaki gisa erabat garatzea bateraezina dela erabateko alienazioarekin, hausnarketaren ukazioarekin eta bizitzaren eta munduaren aurrean zintzotasunik ez izatearekin. Funtsezkoa da euskarri ditugun zutabeei eustea. Galdera eta aukera berrien bila gabiltzan arren, geure printzipio eta esentzia propioei leial eutsi behar diegu. Elementu horiek aingura dira, eta gure egonkortasun emozionala estutzen duen tsunami geldiezin horretan flotatzen jarraitzeko aukera emango digute. Eskatu

laguntza, ez ditugu beti gure arazoak konpontzeko behar ditugun tresna guztiak.

Aitortzea mingarria bada ere, hutsune- edo krisi existentzialaren uneak behar dira bizitzako zenbait etapatan, aldaketaren eragile handia baitira. Hutsunearekin topo egiten denean, sakondu beste aukerarik ez dago ondorearen kausa aurkitu arte.

Pertsona bakoitzak bere prozesua du, denbora eta erritmo desberdinarekin. Hala ere, garrantzitsuena prozesu hori eraikitzen hastea da, geure buruarekin topo egin arte, eta bere garaian egin ez genituen ikaskuntzak egitea, geure esperientziatik ihes ez egiteko indar handiago emango diguten baliabideak aurkituz eta eskuratuz. •



Hutsune- edo krisi existentzialaren uneak behar dira bizitzan zehar. GETTY

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Biharko hauteskundeetan, «alea jacta est»

Berriro ere hementxe gaude, hauteskunde bezperan, uda giroan egindako kanpaina bitxi bat amaitu berri. Gogoetarako omen den egunean. Bereztasunak bereztasun eta bitxikeriak bitxikeria, hauteskundeen emaitza eta ondorego kudeaketa –hau da, gobernu osaketa– garrantzitsua izango dira, baita Euskal Herriko errealitatearentzat ere.

Apenas pasatu dira bi hilabete azken hauteskundetatik, eta handik hona egindako ibilbidea ez dela oso argigarria izan esan daiteke. Bi datu objektibo egon badaude, haatik: bata, PPK Estatuan aurreko hauteskundeak irabazi zituela eta horrek bere horretan biharkoak irabazteko faborito bilakatu duela; bestea, udal eta autonomia gobernuen osaketan argiki ikusi dela PPK Vox-ekin gobernatuko duela hala behar badu. Seguru asko, hala beharko du hauteskundeak irabazten baditu.

Hala ere, azken bozketatik honako aste gutxi hauetan, egoeran zein joeretan aldaketak eman direla sinetsarazi nahi izan digu hainbatek.

Horrela, sorpresaz hauteskundeetara deitu ostean, mugimendu horrekin eta PP-Vox akordioak gauzatzeko ekarriko zuen ezkerreko botoaren mobilizazioarekin, Pedro Sanchezek aurreikuspenari buelta emango ziola entzun genuen. Gain-azpia egitea lortuko zuela. Aste batetik bestera, Feijooekin izandako aurrez aurreko eztabaidak galtzaile bihurtu zuen berriro. Horrenbesteko garrantzia al du halako eztabaida batek? Ondoren, Feijooen hanka-sartze eta gezur batzuk tarteko, PSOE-Sumar gobernu osatzeko itxaropena piztu omen da. Lau hautagaien artean egin beharreko eztabaidan kale egiteak ez omen dio mesederik egin PPKko buruari. Berriro ere galdera bera: Horrenbesteko garrantzia al du gertaera batek? Feijook

droga trafikatzailerik batekin zuen adiskidetasun estuak kalterik egingo ote dion ere ikusteko dago.

Horren denaren erantzuna bihar izango dugu, eta akaso ondoren norbaitek argituko du aipatutako horiek edo horietako batzuek benetan eraginik izan ote duten. Astez astez aldaketa horiek eman ote diren edo mugimendu txikiak ere egon ez ote den.

EUSKAL HERRIKO JOERAK

Euskal Herrian maiatzaren 28ko zenbait joerak bere horretan segitu dutela esan daiteke. Nafarroako egoera berezia gorabehera (nola eboluzionatuko ote du eskuinaren zatiketa horrek?), EH Bilduk emaitza onak izango dituela eta EAJk kezkatzeko motiboak izan ba-

Nafarroako egoera berezia gorabehera, EH Bilduk emaitza onak izango dituela eta EAJk kezkatzeko motiboak izan badituela diote askok

dituela diote askok. Ezker subiranistak bere estrategia berresteko aukera izango luke horrela, nahiz eta Madrilen eskuineko gobernu gailentzen bada joko arauak aldatuko diren neurri batean. Jelkideen go-goan, berriz, boz eguna eta bozen inguruko balorazioak lehenbailehen pasatzea. Bost diputatu lortuta, gaitz-erdi, eta segidan bi helburu nagusi: Madrilen eragile izateko edozein aukera aprobetxatzea, baita PPrek eskutik ere, eta, are garrantzitsuago dena, EAEko hauteskundeak begira jartzea. Joera negatiboa egiaztatzen bada, bere eremu autonomiko kuttunean joera horri aurre egiteko ahaleginak eta bi egingo dituzte, erakunde horien kudeaketari eusteko.

Gero gerokoak, hala ere. Biharko, *alea jacta est*. •

BIDEOJOKOAK EUSKARARENTZAT

Game Erauntsian bideojokoak eta euskara uztartzearen alde egiten dute

📁 JENDARTEA / Nerea LAUZIRIKA

Badira gamer euskaldunak ere, askori otu ez bazaigu ere. Euskaraz bideojokoetan aritu nahi dutenei espazio bat eskaini eta euskarazko jokoen eskaintza areagotzeko egiten dute lan Game Erauntsian. Baina, beste gauza asko ere egiten dituzte, Lander Unzueta kideak azaldu duenez.

«Horrenbeste kontutan gaudesartuta, non batzuetan gaitza izaten den zehazki zertan ari garen azaltzea». Elkarre ofizial moduan antolatuta daude 2016tik eta orduetik, aipatutako lan ildoaz gain, beste proiektu asko ere atera dituzte aurrera.

Horren adibide da webgunean argitaratzen duten bloga: «Bertan, bideojokoei buruzko gaurkotatutako informazioa ematen dugu, hala nola, albis-

Bideojokoetan euskaraz aritzeko eta jokalariei komunitatea sortzeko espazio bat eskaintzeko egiten du lan Game Erauntsiak. Elkarteko kide Lander Unzueta azaldu du eskaintza askok uste baino zabalagoa bada ere, ez dela jokalariek euskaldunen eskarira egokitzen, eta lana dagoela egiteke.

teak, analisiak, garatzaileekin egindako elkarrizketak, iritzi artikulak...».

Gainera, tailerrak ere egiten dituztela azaldu du Unzueta, batez ere gazteei eta umeei zuzendutakoak. Twitchen ere aritzen dira, eta streaming plataformaren bidez bideojokoak zelan euskaratzen diren erakusten dute, besteak beste.

NAIZ Irratiarekin ere irratia egiten du Unzueta,

elkartearen izen berekoa, gaurkotatutako jarraitzeko beste formatu horretan ere. Horrez gain, hitzaldiak eskaintzen dituzte eta aholkularitza lana egiten dute.

Telegrameko taldea ere badaukate, komunitateari zuzendua, «eztabaidatzeko, gomendioak emateko, partidaren bat jolasteko...». Discord plataforman ere zerbitzaria daukate antzeko gauzak egiteko.

Behoko irudian, Lander Unzueta, eskuman. Duela egun batzuk euskarazko bideojokoen inguruko udako ikastaro batean parte hartu zuen. Marisol Ramirez | FOKU

«Finean, denetarik egiten dugu, baina garrantzitsuena euskarazko bideojokoen zerrenda dela esango nuke». Webgunean daukate eta euskaraz eskuragarri dauden bideojokoak bilatzeko aukera bakanetarikoa da: «Adibidez, Steam bideojokoen plataforman bada euskarazko bideojokoak iragazteko aukera, baina gure webgunean aukera ematen dugu ofizialki zein guk gure kabuz euskaratuta dauden jokoak bilatzeko, plataformak iragaziz».

«Euskarazko bideojokoez gain, orain euskal garatzaileei buruzko atalari forma ematen saiatzen ari gara». Badaudela hainbat bideojoko-garatzailerik Euskal Herrian, asko ezagunak ez diren arren. Horregatik, estudioen zerrenda bat egin nahi dute, kokatuta dauden lekuaren arabera eta horrekin datu basea eratu eta edonoren eskura jartzeko.

ESKAINZA ETA ESKARIA

«Esango nuke euskarazko bideojokoen eskaintza eta eskaria ez datozela bat». Unzueta onartu du eskaintza asko hasi dela azken urteetan, «zorionez». Izan ere, gaur egun webguneko zerrendan euskarazko 119 bideojoko daude.

«Egia da badaudela bideojoko handi eta txikiak, adibidez, 'Mario Kart 8' edo 'Outer Wilds' euskaraz daude, baina seguruenik publiko orokorrak bilatzen dituenak ez, esaterako, 'Fornite' edo 'Fifa'». Horregatik, euskaraz jolasteko hautua norberak egiten duena dela azaldu du Unzueta; «ez daukagu erraztasunik mundu honetan euskaraz ibiltzeko». Nahiz eta «Minecraft» eta antzeko jolas oso arrakastatsuek euskaraz dauden, beste eskaintza mota bat bilatuz gero





jokalariak «hankamotz» gertzen direla adierazi du Game Erauntsiako kideak.

«Testuak, menuak eta abar euskaraz ez dauzkaten jokoe-tan ere gure aldetik euskaraz egin dezakegu antolatzen ditugun partida eta txapelketa horietan», helburua baita joko-koa erdaraz egon arren jokalariek euskaraz egitea eta euskaraz gozatzea.

Eskaria eta eskaintza orekatzeko aldera egin beharreko lanaz ere aritu da Unzueta, bai haiek komunitate gisa bai erakundeek: «Ez da erraza, baina zerbait egin beharko litzateke». Askok hausnartu dute jarraitu beharreko bidearen inguruan, bikoizketa edo ekoizpen propioa ote den ego-kiagoa eta, bere ustez, bi alderdietatik ekin beharra dago.

«Badaude sortzaileak bertan, nahiz eta batzuk oso estudio txikietan edo kanpoko taldeetan ari diren» eta haiei bultzada ematea interesgarria izan daitekeela deritzo Unzueta, «ez bakarrik bertako industria sustatzearren, baizik eta euskaldunak izanda, auke-

ra handiagoa dagoelako joko-ko euskaraz garatzeko».

ERAKUNDE PUBLIKOEN INPLIKAZIOA

«Erakundeen aldetik babes-ja jotzea itzela izango litzateke». Horrez gain, kaleratuta dauden bideojoko handiak euskaratzeko ahalegina egitea ere oso interesgarria litzatekeelakoan dago Unzueta. «Ez da horren erraza izaten, askotan saiatu gara Game Erauntsiatik, Elhuyarretik ere bai, Ubisoft edo Electronic Arts bezalako enpresa handiekin harremanetan jartzen haien jokoak euskaratzeko eta ez da horren erraza». Izan ere, garestia da eta denbora luzea hartzen du. «Baina saiakera egin

«Joko askok euskaraz egote hutsagatik arrakasta izango luketela uste dut; euskaraz jolastu nahi dutenek aukera emango liokete bestela jolastuko ez luketen joko bati»

«Ez zaie ikusgarritasunik ematen euskarazko bideojokoei eta jende askok planteatu ere ez du egiten euskaraz jolastu daitekeela; hori da arazo handienetako bat»

Bideojokoetan euskaraz aritzeko gogoia badago zaleen artean.
GETTY IMAGES

beharra dagoela uste dut, gero eta bideojoko gehiago egon daitezkeen euskaraz».

Finantzaketari dagokionez, uste du publikotik indarra egin beharra dagoela. Hala ere, seguru dago enpresa pribatuentzat ere interesgarria izan daitekeela. «Enpresa pribatu batek bideojoko bat euskaraz kaleratzen badu, oihartzuna izango du eta euskaraz jolastu nahi dutenek aukera emango liokete bestela agian jolastuko ez luketen bideojoko bati. Niri, esaterako, ez zaizkit estrategia bideojokoak interesatzen, baina euskaraz badago, agian begiratuko dut eta erosten bukatu dezaket».

Jokoak itzultzea posible den edo ez aurrekontuak erabakitzen du. Izan ere, bideojoko batzuek testu pila daukate, eleberri batek baino askoz ere gehiago. Baina, beste batzuek ez dute horrenbeste eta itzultzeko errazak dira. Joko askok euskaraz egote hutsagatik arrakasta izango luketela uste du Unzueta.

Azpiratu nahi izan du, era berean, komunitateak jo-

koak euskaratzeko egiten duen saiakera.

ZALEEN SAREA

«Gure zerrendan dauden joko asko guk geuk edo beste zale-aren batek itzultakoak dira». Horrek ezin argiago erakusten du gogoia egon badagoela zale-tasun hau euskaraz bizitzeko eta militantzia puntu hori dagoela. «Zergatik ez? Liburuak euskaraz irakurtzeko prest gaude; telesailak eta filmak, gero eta gutxiago badaude ere, euskaraz nahi ditugu. Ba, bideojokoei ere berdin».

Askorik ez dago, eta, gainera, euskarazko bideojokoei ikusgarritasun gutxi ematen zaie: «Jende askok planteatu ere ez du egiten euskaraz jolastu daitekeela; hori da arazo handienetako bat».

Ezagutzen ditugu «Egunean behin» edo «Berbaxerka». Ez dugu imajinatzen, ordea, «Mario kart» edo «Zelda» bezalako jokoak ere euskaraz daudela. «Hori aldatzea tokatzen da lehenik eta behin, eta hortik aurrera ekin ahal izango diogu bideari».

«ZENBAT ETA HOBETO BESTEEI, ORDUAN ETA OKERRAGO DOAKIGU GURI»

UABeko Ekialdeko Asiako Itzulpengintza, Interpretazio eta Ikerketa Saileko irakaslea da Laura Santamaria eta bideojokoen alorrean euskarak, galegoak edo katalanak duten egoeraz Udako Ikastaroek antolatutako jardunaldian parte hartu zuen. Itzulpengintzaren ikuspuntutik katalanak entretenimenduaren industrian duen trataeraren inguruan aritu zen.

«Ez naiz oso baikorra izango», hasi zuen Santamariak hitzartzea. Euskararen Etxean egin zuten jardunaldia; toki ezin aproposagoa, gaia kontuan hartuta. Ikus-entzunezkoen bikoizketan egindakoa erreparatzea aurkeztu zuen jarraitu beharreko bidetzat, gerora aztertu ahal izateko ia bideojokoak hizkuntza gutxituetan eskaintzeko balio dezakeen.

Sektorearen ezaugarriei dagokienez, nabarmendu zuen arrakala handia dagoela hizkuntzari erreparatuz gero, Santamariaren arabera, tokiko sortzaileei ematen zaizkien dirulaguntzek ez dutelako sortzailea produktua katalanez argitaratzera behartzen.

Gainera, azpimarratu zuen hizkuntza gutxituei ez diela mesede egiten aldamenean dituzten hizkuntzetan plazaratutako ikus-entzunezkoen sektoreen gorakadak: «Zenbat eta hobeto besteei, orduan eta okerrago doakigu guri».

Santamariak azaldu zuenez, produkzio propioak eta kalitatezko bikoizketa lanak dira hizkuntza gutxituen presentzia ikus-entzunezkoetan eta antzeko entretenimendu produktuetan bermatzeko modu bakarrak. Horrela, katalanez sortu ziren eta gerora nazioartean hedatu diren zenbait produkzioaren adibideak jarri zituen.

“Polseres vermelles” telesaila gaztelarrera bikoiztu eta espainiar Estatuan eta Mexikon zabaldu zuten, besteak beste. Santamariaren

hitzetan, produkzio horrek argi utzi zuen «agian katalanez ekoiztea ez zegoela horren gaizki».

Duela urte gutxi plazaratu zen “Merlí” ere izan zuen hizpide. Gaztelarrera bikoiztuta ere zabaldu zen, baina Santamariak azpimarratu zuen itzuli gabe ere, gaztelarak bazuela presentzia telesailean, pertsonaia batzuek ez baitzekiten katalanez. Horrela, zalantzan jarri zuen TV3 bezalako hedabide publiko batean tokia izan beharko luketen gaztelerezko elkarrizketek.

Horren ostean etorri zen “Merlí sapere aude”, Movistar+ plataformak ekoiztua. Kasu horretan, aldiz,

Laura Santamaria irakaslea, UIKek antolatutako jardunaldian.
Marisol Ramirez | FOKU



katalanaren presentzia erabat anekdotikoa zela nabarmendu zuen irakasleak.

“Cites” telesailarekin ere antzeko zerbait gertatu zen, azaldu zuenez. Katalanez plazaratu zuten TV3n eta gaztelarrera bikoiztuta zabaldu zuten espainiar Estatuan zehar. Duela pare bat hilabete haren jarraipen “Cites. Barcelona” emititzen hasi dira Kataluniako hedabidean, baita Amazon Prime plataforman ere. Grabazioa ele bitan egin zuten, gehiena gaztelerez grabatuta badago ere, «Amazoni saldu nahi ziotelako». Ondoren, katalanera zein gaztelarrera bikoiztu dute eta, Santamariaren arabera «katalanezko bikoizketaren kalitatea horren txarra da non ikusi ere ezin den egin».

Horrela, produkzioen kalitateak ondorengo hedapenean eta ikus-entzuleen hautuetan duen eragina azpimarratu zuen Santamariak, gaztelera aukeratzeko askoren arrazoia katalanezko bikoizketa eskasa dela iritzita.

Bideojokoen esparrura gerturatuta, haien inguruan Katalunian egiten diren ekimenetan hizkuntza bakoitzak duen pisua aztertu zuen. Bartzelonan egiten den Gamelab konferentziari buruzko informazio ia guztia, esaterako, ingelesez dator, «zerbait ere badago gaztelerez eta apur bat gutxiago katalanez». Era berean, egiteke dagoen Barcelona Games World ekimenean jarri zuen begirada: «Ikusiko dugu ia zer gertatzen den».

Hasieratik abisatu zuen Santamariak ez zeukala baikor izateko inolako asmorik eta iragarritakoa bete zuen, zalantzarik gabe. Hala ere, jarraitu beharreko bidea marraztu zuen: «Ekintzak diseinatu eta saretu beharra dago, adibidez, jokoak krakeatu eta batak besteari pasatzea». Erakunde publikoei ere gaian esku hartzeko galdegin zien.

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA: {

{ gertuko planak }



Gipuzkoa / Oñati

Arrikruz kobak, geologiaren eta paleontologiaren lur barruko taupada

Amagoia MUJKA TELLERIA



Aizkorriren magalean eta Arantzazutik gertu, lurraren barrunbeetara bidaia eskaintzen dute Oñatiko Arrikruz kobek. Kareharritzko gune konplexua da, urak bere bidea egin duen lur azpiko paraje paregabea, begiak eta belarriak zorroztu behar diren tokiak, iluntasunak eta isiltasunak bestelako forma hartzen baitute haitzulo horretan.

Alex Ulek egin digu ongietorria Arrikruz koben atarian. Kobetako teknikaria da eta ondo ezagutzen ditu lurrazpi horretan gertatu diren eta gertatzen diren asko. Denak ez, ez berak ez inork, haitzulo horren parte handi bat esploratu gabe dagoelako oraindik. Ez interes faltagatik, esploratzeko zailak diren bazter asko dituelako baizik.

Orain arte esploratu denetik abiatuta, Arrikruz kobazuloa 15 kilometro luze dela esan daiteke, Gipuzkoako luzeenetakoa. Geologikoki balio handikoa da, formazio oso interesgarriak biltzen dituelako. Jurasiko eta Kretazeo aldietan sortutako prozesu geologikoen emaitza da Arrikruz. Bi errekak –Arantzazu eta Aldaola– sorturiko prozesua. Erreka bakoitza bere bidetik sartzen da mendira, mendi barruan elkartu eta elkarrekin ateratzen dira bertatik. Estalaktitak, estalagmitak, paretetako koladak, ursak –urez betetzen diren lur putzuak–... egitura zoragarriak ditu haitzuloak.

Uleren azalpenak argigarriak dira. «Ez gara kontziente eurria egiten duen aldiro gertatzen denaz. Zerutik etortzen dena ez da ura bakarrik, ura eta atmosferan dagoen CO2a elkartu egiten dira eta intentsitate baxuko azido karboniko bihurtzen dira. Euri azido horrek kareharria ukitzen duenean ikusten ez den erreakzio kimiko bat gertatzen da eta karea kentzen dio, lapurtu egiten dio. Lastotxo moduko batetik jaisten da haitzuloraino eta bertara iristean beste erreakzio kimiko bat gertatzen da. Haitzuloan dagoen oxigenoarekin batzean, atmosferan hartu duen CO2a askatzen du urak. Desegiteari utzi eta eraikitzeari ekiten dio orduan. Oso azkar eratzen diren baina oso-oso txikiak diren kristalezko egiturak eratzen ditu paretetan», azaldu du Ulek. Estalagmitak eta estalaktitak horrela sortzen dira, baita elefante belarriak ere paretetan, “kortinak” ere deituak. Oso-oso finak, mikrokristalez osatuak eta argiak zeharkatzeko modukoak dira. Bisita osoan zehar bazter guztietan

📍 jakinbharrekoak

Oñatiko erdigunearen eta Arantzazuko santutegiaren tartean daude. Aparkalekua beheko partean dago eta hamar minutuko bidea egin behar da oinez kobetara gerturatzeko.

Helduen sarrerak 9 euro balio du; 5-16 urte bitarteko gazteenak, 6 euro; 0-4 urte bitarteko haurrak dohain sar daitezke. Jubilatuek, langabetuek, taldeek eta ikastetxeek prezio bereziak dituzte.

Uztail eta abuztuan ordutegia honako hau da: 09:30-14:00 eta 15:30-19:00. Erreserba egitea beharrezkoa da (943082000). Informazio gehiago, «www.oñatiturismo.eus»

pausatzen da bisitariaren begirada, mendeetan eraikitako eta artean eraldatzen ari den ingurunea topatzen baitu bertan. Eta gidariaren azalpen bikainekin, are ederragoa ikusten da haitzuloa.

Paleontologikoki ere aparteko balioa dauka. Dagoeneko desagertuak dauden animalien arrastoak topatu dira bertan; Errinozero iletsua (*Coleodonta antiquitatis*), leize hiena (*Crocota crocuta spelaea*), orein erraldoia (*Megaloceros giganteus*), leize hartzak (*Ursus spelaeus*)... Aurkikuntzetan garrantzitsuena 1966. urtean egin zuten Arantzazuko bi ikaslek: Iberiar penintsula mailan bakarra den leize lehoiaren (*Panthera leo spelaea*) hezurdura osoa.

«Berezitasuna da munduan hezurdura osoak oso gutxi daudela. Leizeetako lehoiak asko topatzen dira koba gutzietan, baina ez hezurdura osoak. Munduan hamar ale inguru daude eta horietako bat, Oñatin», nabarmendu du Ulek. Duela 35.000 urte bizi izandako leize lehoi emea da, kobara sartu zen eta bertan hil zen. Bere hezurdura osoa barruan geratu da.

LEHOIAREN AURKIKUNTZA 1966. URTEAN

Aipatu bezala, 1966. urtean egin zuten aurkikuntza garrantzitsu hori Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuel Marotok. Arantzazuko fraideen eskolako ikasleak ziren eta ez zen Arrikruzera sartzen ziren lehen aldia. Bertako Aranzadi aretoan sartu ziren, kandelaz eta egunkari paperez egindako argi zuziez lagunduta. Eguerdiko ordu bietan sartu ziren eta zortzietan Arantzazun egon beharra zuten.

Ibili gabeko galeria batera iritsi ziren eta bertan topatu zuten tamaina handiko hezurdura bat. Hartza izango zela pentsatu zuten. Handik atera eta kobazulotik ateratzen saiatu ziren, baina galdu egin ziren, irteerarik ezin topatu. Goizeko seietan entzun zuten beren bila zebiltzanetakoa batek jotako adarraren hotsa. Orduan salbatu ziren. Galdu izanaren sustoa pasatuta, Arantzazuko liburutegiko liburu batean topatu zuten hartzaren hezurdura bat eta konturatu ziren Arrikruzten ikusitako hezurdura horren oso desberdina zela. Beste espedizio bat prestatu eta berriz sartu ziren hezurdura zegoen tokiraino. Hagin bat kendu zioten eta Aranzadiko Jesus Altunari bidali zioten. Eta hura konturatu zen aurkikuntzaren tamainaz: leize lehoi baten hezurdura osoa zen.

Alboko orrialdean, Alex Ule, kobetako teknikaria. Gainontzeko irudietan, kobetako bisitaren zenbait une. Gorka RUBIO | FOKU



Arrikruzte, beraz, arlo askotariko misterioak eta altxorak biltzen ditu bere baitan. Bertara sartzea beste mundu batera bidaiatzea da.

PLAN DESBERDINAK EGITEKO AUKERA

Plan desberdinak egin daitezke, gainera. Arruntenak “Galeria 53” du izena, ordubete inguruko ibilaldia da. Erraz samar egin daiteke, baina eskailerak daude tartean eta beraz, aulki gurgildunekin ezin da pasatu –222 eskailera jaitsi eta igo behar dira–. Oinetako erosoak eta jertse edo beroki bat behar dira, urte osoan hamar gradu baitaude kobazulo barruan. 360 metroko galeria da eta 55 metroko desnibela du. Horren baitan dago estalagmiten gela erraldoia, zortzi metrora iristen den pieza batekin tartean.

Bigarren aukera adin txikiko haurrak dituzten familiei begirakoa da, hiru urtetik gorako haurrentzat pentsatua. Iluntasunean egiten da bisita eta iluntasunari beldurra galtzea da erronketako bat. “Ilunpeko altxorrak” izena du esperientzia horrek eta ordubete baino gutxiago irauten du. Erraz egin daiteke hurrekin eta esperientzia ederra izaten da familientzat.

Hirugarren aukera, “Espeleo Txiki”, sei urtetik gorakoentzat, abentura plan bat da. Bi ordu eta erdiko ibilbidea da eta aldatzeko arropa ekartzea komeni da. «Barruan arrastaka ibiliko gara, pixka bat eskalatzen... abentura ibilaldi bat da», azaldu du Ulek.

Eta, azkenik, helduentzako hiru ordu eta erdiko ibilbide bat dute prestatuta, “Galeria 53”-tik sartu eta Arrikruz kobetatik ateratzen dena. Hau da benetan Arrikruz kobazuloa iristen den ibilbide bakarra. «Errekak zeharkatu behar dira, eskalada gehiago egin, katazulo txikiagoak zeharkatu... benetako abentura da, kirola maite dutenentzat pentsatua, baina edonork egin dezake, abenturazale diren guztientzat».

2007an ireki zituen kobak bisitarentzat Oñatiko Udalak. «Normalean jendea asko harritzen da koban sartzera-koan eta beste mundu bat deskubritzerakoan. Maiz urrutira joaten gara altxor bila eta etxetik gertu altxor ederrak ditugu, Arrikruztekoa bezalakoak», esan du Ulek.

Kobaren benetako dimentsioak ezezagunak dira oraindik, esploratzeko asko falta dela jakitun dira adituak. Baina ikusgai dagoen laginak bisitaria harritu egingo du.



Nagore Barrena Oruechebarria

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Proteinak eta beraien egitura

Teknologia atala irakurtzen ari zara, bai. Nahiz eta izenburuaren arabera, biologiaren atalean zaudela pentsatuko duzun. BBVA Fundazioako “Fronteras del conocimiento” sariak ikusita ere, oraingoan adimen artifizialaren inguruko saria topatu dugu, baina ez Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia arloan, Biologia eta Biomedikuntzan baizik.

Lehenengo eta behin utz iezadazue sari horien inguruko sarrera txiki bat egiten. BBVA Fundazioak Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenarekin lankidetzan emandako nazioarteko sari-multzoa dira, eta ikerketa zientifikoaren eta kultura-sorkuntzaren arloan egindako funtsezko ekarpenak aitortzen dituzte. Sari gazteak izan arren, 15 urte egin berri dituzte eta munduko sari entzutetsuen artean tartea egitea lortu dute. Esate baterako, geroago Nobel sariren bat jaso dute BBVA Fundazioaren “Fronteras del conocimiento”ko 21 saridunek.

2022. urteko edizioan, eta aurten egindako sari-banaketan, Biologia eta Biomedikuntza atalean David Baker, Damis Hassabis eta John Michael Jumper izan dira sarituak, adimen artifiziala erabiliz proteinen hiru dimentsioko egitura zehazki iragartzeko egindako ekarpenagatik.

Baina zergatik da garrantzitsua proteinen hiru dimentsioko egitura ezagutzea? Eta nola ematen da prozesu hori? Proteina baten egiturak bere funtzio biologikoa zehazten du. Proteinak oker tolestuz gero, degradatu egiten dira. Hortaz, proteina baten egitura ulertzea funtsezkoa da gaixotasunak ulertzeko, botikak diseinatzeko edo terapia gidatuak garatzeko. Proteinen azken konformazio hori (hiru dimentsioko egitura) da, oraindik ere, biologiako arazo garrantzitsuenetako bat.


Aminoazidoen sekuentziak zehazten du toleste-bidea; aminoazidoz sortutako kate batetik abiatzen gara, eta horiek beraien arteko elkarrekintza sortzen dute, hiru dimentsioko egitura bilakatzeko. Lerro hauen azpian ageri den irudiak, hain zuzen ere, modu argian erakusten du aipatutako prozesua.

Saridunek adimen artifizialeko sistematik (RoseTTAFlod eta AlphaFold) sortu dituzte, aminoazido sekuentzia lineal batetik, proteinaren egitura aurreikusuteko. Horretarako, neurona-sare sakonen ahalmen bete-beteaz probestu dira. Esperimentalki, laborategian urteak behar izaten dira proteina bakar baten egitura aurreikusteko. Baina ekarpen honi esker, aurreikuspena denbora la-

burrean (minututan) izateko gaitasuna lortu da.

Proteinaren egitura denbora laburrean aurreikusteko gaitasunaz gain, iragarpenak zehatza ere izan behar du. CASP141-en (ikerketa-taldeen beren iragarpenen zehaztasun maila probatzeko erronka) antolatzaileek AlphaFold onartu zuten proteina-egituraren iragarpen-problema irtenbide gisa lortutako zehaztasun maila altuagatik. AlphaFold sistema erabiliz aurreikusten zen egitura esperimentalki lortutako egituren iragarpenaren berdina zen.

Ekarpen honi esker, zientzialariek proteinen arteko interakzioak aurreikusi, proteina guztiz berriak diseinatu eta diana farmakologiko berriak aurkitzeko gai dira. •



Irudia: UNIVERSITAT DE VALENCIA

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Zenbait legeren mehatxua, «zientzia» eta «enpatia»

Amaitu dira sanferminak, hauteskunde kanpaina atzo amaitu zen eta Tourra bihar amaituko da hemendik urrun. Edonola ere, astelehenean bertan abiatuko da hauteskunde kanpaina berria, edo betikoak jarraituko. Badakit ezin dela biharkorako botorik eskatu, baina zalantza bat sortu zait: eska liteke hurrengorako?

Tourra hasita berehala hasi ziren sanferminak eta hauteskunde kanpaina, eta haiekin bateratsu iritsi zen euskararen aurkako hamaikagarren eraso instantzia judicial batetik, Auzitegi Konstituzionaletik, hain zuzen. Aldiberekotasun hori, eraso horiek azkenaldion ia ohitura izanda, ez da harrigarria. Izan ere, egun bakan batzuk geroago Gasteizko Gobernuak lan poltsetarako ezarritako hizkuntza irizpideak atzera bota zituen Gasteizko epaitegi batek. Harrigarria izan liteke, kanpoko begirale bantentzat, «Europar [eta munduan eta Esne Bidean] autonomia mailarik handiena» duen komunitatean egiten diren legeak zeinen erraz bihurtzen diren hutsaren hurrengo.

Ez dakit guztiz konturatu garen noraino izan den larria hainbat pertsonak mendeetan bizi izan duten egoera, eta ez naiz esklaboez –bakarrik– ari; esate baterako, joera edo izaera sexuala ukatu, debekatu izan zaien pertsona horiena. Ikaragarria da. Ez genekien, edo zenbait kasutan bagenekien baina normaltzat jotzen genuen. Ezerosoa zen eta errazagoa zen haien aurka hitz egin edo jokatzeko defenditzea baino, horiek zerbaiten errudun egitea.

Oraindik ere, eta ez Saudi Arabian, Polonian edo Errusian bakarrik, modu bat edo besteko jazarpena jasaten dute, eta oraindik ere horien eskubideak aitortzen dituzten legeek asaldatu egiten dute jende asko. Ez beraiei ez inori eskubiderik murrizten dietelako,

beste batzuei oinarritzko zenbait eskubide onartzen dizkietelako baizik.

Ez dakit zenbat milioi transexual dauden Euskal Herrian, edo Europan, ez dakit hamazazpi dauden, baina denentzako lege batek denen eskubideak babestu behar ditu, eta bi pertsona babes horretatik kanpo uzten baditu, ez da denentzako legea.

Badakit emakumeak munduko biztanleen erdiak baino gehixeago direla. Mendeetan jasan duten zapalkuntzak galarazitako eskubideak eta haren ondorioz duten desabantaila egoera berdintze aldera egindako legeak eta neurriak mehatxu gisa sumatzen dituzte askok. Gauza bertsua gertatzen zaie batzuei lege batek edo, are okerrago, greba batek langileen baldintzak hobetzen dituenan.

XIX. mendean zientziak «behe mailako» arrazatzat jotzen zituen txinatarrak. XX. mendean homosexualitatea gaixotasuntzat jotzen zuten. XXI.lean euskal gizarteak gaixorik dagoela diote

XIX. mendean zientziak «behe mailako» arrazatzat jotzen zituen txinatarrak (beraz, justifikatuta zegoen goi mailako beste arraza batek haiek kontrolpean izatea). XX. mendean homosexualitatea gaixotasuntzat jotzen zuten. XXI. mendean euskal gizarteak gaixorik dagoela diote. Horren sintoma argia da «euskararen inposizioa». Ikaragarria da. Zenbat euskaldun bizi izan eta hil dira beren izaera ukatuta, lapurtuta, beren hizkuntza gordean, are hartaz lotsatuta?

Enpatia modan dagoen honetan, okerrera da lagun homosexual grazioso bat (hori bai, asko maite duguna) edukitzea dela uste izatea. Hori, baina, homofobiaren zurikeria merkea izaten da maiz. •

Iratzar fundazioko ordezkari gisa, Ibai Atutxa eta Andoni Olariagak ekainean Erroman izan ziren The Future Factory jardunaldietan parte hartu zuten. Future Factory «konexio, konfiantza, elkartasun eta erresistentzia gunea» da, zenbait jendartetan indarrean diren alternatiba positiboetan oinarrituta ideia sortzaileak eta feminis-tak baliatzen dituena. Hainbat herrialdetako partaideek, lau egunean, ezkerren ildo estrategikoez hitz egin eta ondorio bat atera zuten: imaginazio politikoa ezinbestekoa da.

Imaginazioa aldarrikatzen du Ibai Atutxak (Galdakao, 1984) “Barbaroak eta zibilizatuak. Euskal gatazken eskuliburu materialista” liburuan (Txalaparta, 2022), Euskal Herriko borroken diskurtsoa eguneratze aldera. Berak egin zuen irekiera hitzaldia Erromako jardunaldietan.

Pozik jardunaldiekin eta zure esku hartzearekin?

Bai. Euskal Herriak bizi dituen zenbait gatazka erdigunean jartzeko eta beste borroka batzuekin elkarrizketak sortu eta loturak sortzen saiatzeko aukera paregabea izan zen. Oso polit eta eraginkorra izan zen.

Zer dela-eta egin zenuen zuk hasierako hitzaldia?

Azaroan “Barbaroak eta zibilizatuak” plazaratu nuen Txalapartaren Iparrorratza bilduman, eta Iratzar fundazioa bildumaren koordinatzaile eta Future Factory-ren antolaketan parte hartzen duten taldeetako bat denez, hortik sortu zen proposamena.

Beste borroka batzuekiko loturak jorratu dituzu, hain zuzen, liburu horretan.

Bai. Bertan planteatu nituen ideia nagusiak agertu nituen Europako jende haren aurrean. Euskaraz idatzi nuen liburua, kontzienteki, noski, batez ere Euskal Herriko eztabaidetan parte hartzeko, baina hasieratik neuzkan kezketako bat zen bi borroka horiek, nazio gatazka eta hizkuntza borroka, beste borrokekin batera pentsatu beharra. Iruditu zitzaidan azken hamarkadetan klase borroka, borroka transfeminista edo kritika dekolonialek aurrera egin dutela nahiko era baliokide batean

bezala, elkarrekin pentsatzeko, baina uste nuen lan bat egin behar genuela nazio gatazka eta hizkuntza borroka logika berberetan pentsatzeko, batez ere gero aliantzak pentsatuko baditugu, eta liburua hori egiteko ariketa bat ere bada. Hauda, borroka eta zapalkuntza guztien atzean logika pareki-deak dauden pentsa dezagun.


Pareko logikak arlo guztieta-ko gatazketan erabiliz.

Hori da. Nik planteatzen nuen zein den guztion etsaia, eta badago XVI. mendetik

*«Hizkuntzari egotzi
zaizkion ezaugarri
negatibo edo
estigma horiek
Euskal Herriko
komunitate
desobediente eta
emantzipatzaileen
aurka egiteko erabili
izan dira»*

abian dagoen zibilizazio proiektu bat, modernitatea, eta haren azken eguneraketa edo optimizazioa kapitalismo neoliberal da. Zibilizazio proiektu honek abian jarri dituzte zapalkuntza mekanismo batzuk komunitate zapalduoi era ezberdinean eragiten dигutenak, baina azkenean kapitalismo neoliberal guztiontzat berdina da. Orduan, hor sortu daitezke loturak.

Gatazkan-gatazkan forma baina hartuta, baina berbera, ezta?



«Barbarizatutako kolektiboak identifikatzen saiatu naiz, eta nola horietatik artikulatzen joan den etengabe gu jakin bat, gu euskaldun bat»

Bakoitzean bere forma hartuko du eta bakoitzak bere historia izango du, eta hori ere ikasi eta ulertzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Horregatik liburuan XVI. mendetik aurrerako bidea egiten dut. Hau da, nazio gatazkaren eta hizkuntza borrokaren historia barbarizazioaren ideia horretatik egiten dut, baina betiere beste zapalkuntzen historiekin batera, ikusita nola hainbat zapalkuntza historia paraleloan gertatzen diren.

Liburuaren lehen partean jorrratzen duzu barbarizazioa, eta bigarrean, lau barbarizazio identifikatzen dituzu.

Izendapen hauek ez ditut nik asmatu. Lehenengo barbarizazioa, XVI. mendean gertatu zena, “idolatra madarikatuarena” izan zen; bigarrena, XIX. mendekoa, “europar primitiboarena”; hirugarren barbarizazioa “etnia kolonizatuarena” da, eta laugarrena, “terrorista irrazionalarena”. Etengabe gertatu da batez ere botere guneetatik hizkuntzari egotzi zaizkiola ezaugarri batzuk, eta horiek kasuan-kasuan ezberdinak badira ere, beti erantzun diote «barbaroaren» edo «primitiboaren» edo «basatiaren» logika horri. Hizkuntzari egotzi zaizkion ezaugarri negatibo edo estigma horiek Euskal Herriko komunitate desobediente eta emantzipatzaileen aurka egiteko erabili izan dira.

XVI. mendean “idolatra madarikatu” bezala identifikatu ziren sorginak, adibidez; edo, XIX. mendean, “europar primitibo”-aren diskurtsoa erabili zen landa eremuko langileak, hau da, baseritarrak exotizatze eta, era berean, hiri eremuko langileak diziplinatze. Gero, XX. mendeko 60ko hamarkadan

«euskal matxinada» delakoaren baitan, euskal pentsalariak saiatu ziren diskurtso horri buelta ematen; horrela, arrazaren ideia baino gehiago etniaren ideia erabiltzen hasi ziren, eta nik uste dut hor badagoela saiakera antibarbarista moduko bat, diskurtso bat Euskal Herria komunitate zapaldu gisa pentsatzeko. Baina bere mugak ditu, etnia kasik klub bezala eta ez borroken artikulaziotik pentsatuta. Horren ostean, 80ko hamarkadatik aurrera, neoliberalismo betean, gaur egun ditugun diskurtsoak daude, eta bi bide: bata, euskararen erabilera inposizio, indarkeria, antidemokraziatik pentsatzen dela adierazten duena, hizkuntzaren alde borrokatzea ekintza antidemokratikoa dela, eta euskaldun zibilizatuarena, gaur egun “neoliberalismo linguistiko” esaten zaion horretan oinarritua, guztiok hiztunen merkatu batean egongo bagina bezala, bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egingo balu bezala eta guztion egitekoa gure hizkuntza saltzea, erakargarri egitea balitz bezala. Horrek saltzaile egiten gaitu. Orduan, hizkuntza inposaketarekin, antidemokraziarekin eta indarkeriarekin lotzen duen diskurtsoarekin Euskal Herriko mugimendu emantzipatzaileak estali eta estigmatizatu egiten dira.

Nik uste dut estigmatizazio hori eta diskurtso hori eraitsi behar ditugula, barbaro edo zibilizatuaren logika hori hankaz gora jarri, erdigunean, hain justu, komunitate zapalduak jartzeko euskaratik, euskararen erabileratik eta euskararen artikulaziotik.

Lehenengo irakurri nuen Europolen arabera Kataluniako

eta Euskal Herriko mugimendu independentistak aktibo eta biolentoenak direla.

Logika eta diskurtso horren arrastoari jarraitzen hasi nintzanean ez nekien behin liburu bukatu eta hortik aurrera zein erabilgarri izan zitekeen gero irteten ari diren diskurtsoak ere identifikatzeko, eta hori bada bat. Bat-batean Europako nazio askapen mugimenduak logika horren arabera kokatzen dira, mugimendu emantzipatzaile eta demokratizatzaileak terrorista eta biolento gisa identifikatzen dira. Era berean, [EBko Atzerri eta Segurtasun Politikako goi ordezkari Josep] Borrell irten zen esaten Europatik kanpokoa oihana dela eta Europa barrukoa, lorategia; berriro basatia eta zibilizatu.

Eta, logika horretatik kanpo, nazio zibilizatu gabea proposatzen duzu.

Hori da. Zerbait propositibo eginez bukatu nahi nuen liburu, ez holako erabateko soluzioa eskainiz, zeren uste dut hori ez dela norbanakoaren lana, baina agian ezberdin pentsatzeko gako batzuk eman ez amaitu nahi nuen. 60ko hamarkadako testu batzuk bilatu nituen, zapalkuntzak erdigunean jarrita barbaro/ zibilizatu logika horretatik ihes egiten dutenak. Identifikatu nuen, esate baterako, Franz Fanonen liburu baten itzulpena, itzultzaileek hasieran Simone de Beauvoirren lana aipatzen dute, dena euskara estandar batean, eta nik planteatzen dut hor badagoela Euskal Herri bat zeinetan euskara erabiltzen den gatazka eremu bezala borroka feminista eta antirrazista artikulatzeko, eta horrela euskal nazio gatazka ere termino berrietan pentsatzeko, eta nola

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

IDAZLEA

Arrakasta handia izan zuen ekainean

Erroman izan ziren Futur Factory

jardunaldietan egin zuen hitzaldiak.

Besteak beste, hizkuntza borroka eta

nazio gatazka beste borrokekin batera

pentsatu beharra jarri du mahai gainean.


Xabier IZAGA GONZALEZ

artikulatuko ditugun gatazkak batera. Horrek, nahitaez, euskalduntasun berri bat dakar, esentzietan eta merkatuan oinarrituta ez dagoena, borroka guztiz demokratikoetan oinarrituta dagoena.

Beste testu bat da Amaia Lasaren "Hitz nahastuak" poema liburua. «Nere zortzi deiturak ez dira euskaldunak. Nere euskara ez da garbia», dio, baina era berean, «Euskal Herria sortzen ari gara», eta hori beste poema batzuetan planteatzen du emakumearen zapalkuntzatik, edo eskubiderik gabeko nazioen ikuspegitik, eta lanak Rosa Luxemburgen aipu batzuen markoa du. Berriro ikusten dugu euskara ustez zikin bat, hainbat borroka artikulatzeko eta, poemak dioen bezala, Euskal Herria eraikitzeke gai dena.

Eta ezberdin pentsatzeko proposamena hortik abiatu zen.

Nik bi liburu horietan identifikatzen nuen nazioa eta nazio askapena pentsatzeko gramatika berri bat, eta gramatika horretatik nik proposatzen dut, esate baterako, goazen aberria ezberdin pentsatzera, eta 'aberri' hitzean esku-hartze hau egiten dut: imajinatu 'aberri' hitz elkarketa, 'aba' eta 'erri', sabindarra izango ez baltz, baizik eta 'ab' latineko aurrizkia, behetik gora eragiten duena, kanpotik barrura datorrena edo erdigunean ez dagoena adierazten duen aurrizkia; horrek ematen zidan, hain justu, gizarte borroken artikulaziotik eta ekintzatik aberria pentsatzeko gaitasuna, zeren ikuspegi horretatik aberria birdefinituko genuke behetik gora eragiten dugunon aberri bezala, kanpotik barrura datozenen aberri bezala edo erdigunea okupatzen ez dutenen aberri gisa. Hori izango li-



Aritz LOIOLA | FOKU

tzateke, hain justu, barbaro/zibilizatuaren logika tranpati horretatik irteteko modu bat.

Bilakaera baten jarraipena da, beraz.

Erabat, eta nik horri ere benetakoa arreta ipini nahi nion; hau da, Euskal Herrian gertatu diren eztabaidak ekarri eta horiekin aurrera egin. Orduan, bai, gaur egun dagoeneko gertatzen ari diren nazioa ulertzeko modu berri batzuetatik tiraka ari da liburua; adibidez, klase zapalkuntzaren, edo feminismoaren, edo hizkuntza

borrokaren inguruan gertatzen ari direnak.

Ez da faltako kaka-nahastea dela uste duenik...

Errealitatea da hori. Errealitatean borroka eta zapalkuntza guztiak batera gertatzen dira eta liburuan momentuan-momentuan identifikatzen saiatu naiz zeintzuk izan diren barbarizatutako kolektiboak eta nola kolektibo horietatik artikulatzen joan den etengabe gu jakin bat, gu euskaldun jakin bat. Kontua izaten da, eta horri aurre egiten saiatu naiz, zer-

bait idaztean beti ematen duela errealitatea holako konpartimentuetan banatzen ari garela, eta konpartimentu jakin bati arreta jartzen, baina esan duzuna, errealitatea holakoa da, kaka-nahastea, dena batera gertatzen ari da etengabe.

Esan duzunez, liburua espero baino erabilgarriagoa da.

Nik uste dut honezkero liburua bide pixka bat egin duela. Izan dut Future Factoryn bertan Europako eragileekin eta Euskal Herriko irakurleekin hitz egiteko aukera, eta jen-

«Gaur egun dagoeneko gertatzen ari diren nazioa ulertzeko modu berri batzuetatik tiraka ari da liburua; adibidez, klase zapalkuntzaren, edo feminismoaren, edo hizkuntza borrokaren inguruan gertatzen ari direnak»



deari erabilgarria izan zaion inpresioa izan dut. Tira, benetakoa gako batzuk ematen dituela iruditu zait. Irakurle bategen esan zidan –eta horrelako gauza politikak esaten dizkizutenean apuntatu egiten dituzu–, liburua bera ere gorria denez, hizkuntza borrokak liburu gorri bat behar zuela, eta nirea dela. Nik ez dakit hau den hizkuntza borrokaren liburu gorria, baina egia iruditzen zait gure hizkuntza borrokak liburu gorri bat behar duela, eta honek horretarako bidea egiten laguntzen badu, pozik.

SHARENTING-A

Seme-alaben informazioa sare sozialetan zabaltzea ez da gauza hain xaloa

📁 JENDARTEA / GAUR8

Haurren %23k online presentzia dute jaio aurretik, gurasoek eko-

grafiak partekatzen dituztela. Ehuneko hori azkar igotzen da: %81ek, sei hilabete bete baino lehen. AVG segurtasun informatikoko enpresak hamar herrialdetan –tartean Estatu espainola– egindako inkesta batek utzitako datuak dira. Seme-alabei buruzko informazioa, bideoak eta argazkiak sare sozialetan zabaltzeari “sharenting” esaten zaio; partekatu (share) eta gurasotasun (parenting) hitzen elkarketatik sortua.

«Ez dugu gure seme-alaben intimitatea errespetatzen, eta horrek eragina du haien etorkizuneko identitate digitalean, baina ez horretan bakarrik: gehiegizko esposizio horren ondorioz, identitatearen ordezkapena gerta daiteke, online iruzurra, *grooming* edo *cyberbullyng* bidezko biktimizazioa edo eduki hori haurren sexu-esplotaziorako material bihurtzea», ohartarazi du Irene Montiel UOC-ko Zuzenbide eta Zientzia Politikoko Ikasketen irakasleak, haurren online biktimizazioan adituak.

Hamar urte eskasean haurren sexu-abusuen edukiak %1.815 igo dira sarean. Internet Watch Foundationen datuen arabera, 2013an eduki horiek zituzten 13.343 web orri zeuden eta 2022an, 255.571. Material horretan adingabeen bortxaketan argazkiak eta irudi sexualizatuak daude tartean, baina beste asko bestelakoak dira. «Pentsatzen dugu haurren sexu-esplotazioko irudiak biltzen dituzten pertsonen oso larriak direnak bakarrik biltzen dituztela. Baina errealitatea da erasotzaileen bildumetan hau-

Seme-alaben irudiak eta bideoak sare sozialetan partekatzeari «sharenting» esaten zaio. Hasieran xaloa dirudien praktikak ertz zorrotzagoak izan ditzake, haurren identitate digitalean kaltea sor dezakeelako edota hondartzako irudi inozente bat sexu-esplotaziorako material bihurtzeko daitekeelako.

rrer irudi ez-sexualizatuak bereziki presente daudela».

Datuak argigarriak dira. Zigoritutako erasotzaileei –irudiak kontsumitzeaz gain, fisikoki ere eraso egiten duten pedofiloak– konfiskatutako materialaren %72 CIESI eskalako 0 motako irudiak ziren. 0 maila guztiz edo partzialki biluzik dauden haurren irudi ez-erotiko edo ez-sexualizatuak dagokie, iturri komertzial, familia-album edo iturri legitimoetatik datozenek. Hau da, sexualizatu gabeko argazkiak, normalak, egunerokoak.

«Ez dugu pentsatzen ‘nire neskatoaren argazki tolesgabe

Haurren sexu-esplotazioan zabaltzen diren irudietako asko sexualizatu gabekoak dira, familia-albumetan topa daitezkeenak.
GETTY IMAGES

hori hondartzan jolasten’ munduko edozein tokitako abusotzaileen bildumetan ager daitekeenik. Edo profil faltsu batean erabil dezaketenik beste haur batzuk engainatzeko eta liluratzeko», berretsi du Montielek. Espainian haurren sexu-esplotazioko orrialdeen %2 daudela uste da, baina Europako lehen kontsumitzailea eta munduko bigarrena da.

OPOR GARAIA ETA GABONAK

Seme-alaben gehiegizko esposizioa areagotu egiten da zenbait garaitan, oporretan eta gabonetako jaietan adibidez. Denbora luzeagoa izaten da etxeko txikiekin partekatzeko, une bereziak sortzen dira eta irudiak partekatzeko gurasoen joera nabarmendu egiten da.

Adibidez, ohikoa izaten da ikasturte amaierako emanaldia YouTube zintzilikatzea. Hain zuzen ere, YouTube bezalako plataformak borroka egiten ari dira pedofiloen erabileraren aurka. 2019an jakin zen YouTubeko edukiaren zati bat haur-pornografiako material gisa erabiltzen zela. «Sareak sentsibilizatuta dauden arren, erabat

xaloak diren edukien eta eduki horien erabilera gaiztoaren arteko muga zehaztea ez da erraza», nabarmendu dute adituek. YouTube ez ezik, Instagramek, Facebookek edo TikTokek ere arazo bera dute.

Horri beste arazo handi bat gehitu behar zaio haurren sexu-esplotaziorako materialari dagoeneko mundu digitalean oso presente dagoen eta sare sozialak normalizatuta dituen gazte horrek mugikorra du orain. «Adingabeek mugikorra duten adina aurreratzen ari da, eta *grooming*-a eta *sexting*-a handitzen ari da. Gero eta haur gehiago ari dira horrelako materialak autoekoizten», ohartarazi du Montielek. Lehen smartphonearen batez besteko adina 10 urtekoa da Estatu espainolean. 2022an adin txiki-koen sexu-abusuak jasotzen zituzten 255.571 web atzeman ziren eta irudi horien %78 “autoekoiztuak” ziren, 11-13 urte bitarteko haurrek eginak.

ZERGATIK ERAKUTSI SEME-ALABAK?

«Bi faktore daude: lehenengoa, gurasoek beren bizitza partekatzeko ohitura dutela, eta, horren ondorioz, ohitura hori seme-alaben bizitzara hedatzen da. Eta bigarrena, haien kontaktu-sareak halako irudiekiko gogoia erakusten duela, eta horrek sustatzen du irudiok partekatzeari; finean, sare sozialetan ia denok bilatzen ari gara gizartearen onarpen gorenaren besterik ez da», diote adituek. «Seme-alabak sareetan agerian jartzeko bulkadak haien existentzia gurearen gehigarri bezala ulertzetik dator. Hori ez da onargarria. Txikiaren naturaltasunak eta xarmak ia mundu guztia-engan pizten duen begikotasuna aprobetxatzeko nahia ere badago horren atzean», ohartarazi dute.



Segi dezagun dantzan, segi dezagun ametsetan

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Bi hilabete eskas igaro dira gaur bezala hauteskunde aurreko eguneko testu hau idaztea tokatu zitzaidanetik. Aurrekoan abesteko eskatu nizuen eta aizue, emaitzak ez ziren txarrak izan, kar, kar... Beraz, nahi baduzue, honetan ere abestu dezakegu, hamaika abesti datozkit burura, baina zer iruditzen zaizue hau? «Segi dezagun dantzan, segi dezagun ametsetan, zu eta ni batera geldiezinak gara».

Ez da emaitzak ez zirela txarrak izan, onak izan ziren, oso onak. Eta oraindik

hobetu daitezke bihar eta datozen hauteskundeetan.

Onena niretzat orain arte garaiezin sentitzen ziren jeltzaleen noraeza ikus-tea izan da. Hegemonia amaitu ote zaie? Gehien maite dutena, boterea, esku artetik nola doakien ihesi bizitzen ari dira eta urduri daude, oso urduri. Hainbeste, non boterean jarraitzeagatik edozer (eta edozer diodanean, edozer da) egiteko prest daudela erakutsi duten inoiz baino argiago. Ez naiz hasiko adibide guztiak zerrendatzen, baina deigarrienak Durangon eta Gipuzkoako Batzar

Nagusietan gertatutakoak izan dira. Ba horixe: haien amak ere saltzeko gai dira ezker independentisten gaineratik gertatzeko eta boterean jarraitzeko. Eta behin lortuta, zer da egin duten lehen gauza? Haien alkatetza lortu duten herrietan alkateen soldatak igo!!

Guk herria eta herritarrak maite ditugu gehien, ez boterekeria. Eta herriak ikusi du hau horrela dela, emaitzak ikusi besterik ez daude. Oinarri guztiaren indarra, guzti-guztiona, beharko dugu Madrildik datozen eskuin zaunkak jasan eta haiei aurre egiteko. •

Bazkalosteak

**Amagoia
MUJIKIA TELLERIA**

Bazkalosteko solasaldien herria da gurea. Zenbat mundu ez ote diren konpondu euskal mahaien bueltan, ardo kopak eta kafe kizarak elkarrekin dantzan hasten diren une horretatik aurrera. Eztabaidak, errietak eta borrokak ere gertatu izan dira. Betiko laguntasunak piztu dira bazkaloste batean eta betiko hase-reak lehertu.

Ez dakit heldutasuna edo bake-giroarekiko maitasuna izango ote den (bake faltsua, noski), baina urteekin ikasi dut mahai-kideen arabera eztabaida batzuk

pizten eta beste batzuk saihesten. Ez da arte makala hori, hizketarako bide ego-kiak sumatzearena, alegia.



Batzuetan mahai politiko eta soziala tokatzen da, herria eraitsi eta berriz josteko nahikoa indar eta pasio daukana. Tragoek ere ematen dute indarra, noski. Beste batzuetan hobe da gai sozialak eta politikoak saihestea eta bestelako pasadizoetan galtzea. Desadostasunak forma oso itsusiak har ditzake bazkaloste batean. Badira urte batzuk osaba batekin seko haserretu nintzela atez atekoa zela eta ez zela. Garai gogorrek ziren

haien eta berak “El Diario Vasco” irakurtzen zuen. Egun batzuetara adiskidetu ginen, baina ez ginen ados jarri.

Kontua da duela gutxi horrelako bazkaloste batean nengoela, gai politikoak eta sozialak kontrako eztairitik joan daitezkeen horrelako batean, eta hara non espero ez nuenak honako hau bota zuen: «Oraingoan botoa ematera joan beharko da. Fatxa horiek irabazten badute, ederra daukagu». Harrituta geratu nintzen, gutxien espero nuenak bota zuen gogoeta. Esperantza-koxkor bat kafe kizaran. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ARTIKUTZAKO ENOBIETAKO PRESA ERAIKITZEN

Enrique Calderon Valentzian jaiotako bide-ingeniaria izan zen, baina Donostian bizi zen. Errepide, presa eta ur-kanalizazio lan ugarian parte hartu zuen, bai Euskal Herrian bai Estatuan. Gaztetatik argazkigintzaren zale izan zen, eta parte hartu zuen obra ugariak iruditan jaso zituen. Bere familiak zaindutako funtsean dauden argazkien artean, joan den mendeko 50eko hamarkadaren amaieran Artikutzako lursailean Enobietako presa eraikitzen ari zireneko erreportaje bat dago. Artikutza Donostiako Udalarena da eta Nafarroako Goizueta udalerrian dago. Artikulu honetako bi irudiak presaren eraikuntzaren erreportajeok dira. Enobietako presa dagoeneko ez da erabiltzen eta zati bat eraisteko zain dago. Calderonen funtse ehunka negatibok eta 8 eta super 8 mm-tan grabatutako 50 film-erroiluk baino gehiagok osatzen dute eta XX. mendeko 60ko hamarkadan Donostian, inguruetan eta familia giroan jasotako irudiak biltzen ditu.



**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

